



UROLA KOSTALDEKO EUSKAL ESCOLA PUBLIKOAZ HARRO!

Urola Kostaldeko eskualdean 6 Udalerri ditugu: Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia. Udalerri bakoitzak, Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Eskola du, 12 urte arte: Lardizabal Herri Eskola, Basakaitz Herri Eskola, Iturzaeta Herri Eskola, Zaragueta Herri Eskola IPI, Orokieta Herri Eskola, Oikiako Eskola eta Zumaia Herri Eskola. Eskualdeko eskaintza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokiona, Zaragueta IPI (Orio), Lizardi BHI (Zarautz) eta Zumaia BHI-k (Zumaia)osatzen dute, 16 urte arte.

Kalitatezkoa, denona, denontzako, euskalduna, laikoa, aniztasunean eta hezkidetzan konprometitua den zerbitzua du Urola Kostaldeko eskualdeak, ikasle guztien hezkuntza integrala eta gizarte kohesioa bermatzen dituena. Horregatik, Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoaz harro gaude.

Etorkizun hurbilean, ordea, errealitateak datu kezagarriak eskaintzen dizkigu. Alde batetik, Euskal Autonomi Erkidegoko jaiotza-tasa jaisten ari da. Bestalde, 2022ko urte hasieran Gasteizko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko presidentek, alderdi politiko nagusien adostasunarekin, EAeko Hezkuntza-Akordioaren zirriborroa aurkeztu zuen. Zirriborro hau izango da, emendakinak jaso ondoren, Hezkuntza Lege berriaren oinarria. Lege honek, egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoaren Legea ordezkaturiko du. Zirriborro honek, ordea, egungo gizarteak hezkuntza mailan dituen zailtasun eta beharrei erantzun egokirik eman gabe jarraitzen du.

Hau guztiagatik *Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoaz Harro!* gune honek ondorengo helburuak betetzeko lan egingo du:

1. Administrazio Publikoek Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoa erdigunean jartzeko eta lehenesteko.
2. Administrazio Publikoei Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoak behar dituen baliabideak exijitzeko.
3. Gizarte justuago eta inklusiboago bat lortzeko bidean, ikastetxeen arteko segregazioa eragiten duten erabakiak desagertu daitezzen eskatzeko.



4. Eskualdeko Euskal Eskola Publikoek ikasleen eta familien euskalduntze prozesuan egiten duten lana balioan jartzeko.
5. Eskualdeko Haurreskolek 0 eta 2 urte arteko haurren heziketan duten garrantzia azpimarratu, hauen beharrezko baliabideak exijitu eta zerbitzuaren doakotasuna eskatzeko.
6. Eskualdeko hezkuntza zentroetako jangela zerbitzua ematerako orduan, eskualde mailako kudeaketaz gain, gertuko eta kalitatezko lehengaiekin eginiko otorduak eskaintzearen alde lan egiteko.
7. EAEko Hezkuntza-Akordioaren zirriborroarekiko desadostasuna adierazi eta berau alda dadin eskatzeko.

Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoaz Harro!